



LIBURUA

Negarretik jolasera



MALKOAK

SIBYLLE DELACROIX

Ilustrazioak:

SIBYLLE DELACROIX

Itzulpena:

MIREN AGUR MEABE

26 ORRIALDE, HAURRENTZAT
TTARTALO, 2019

XABIER ETXANIZ ERLE

Bitxia benetan Ttarttalo etxeak argitaratutako liburu hau. Nork egiten duen negar, nolakoak izaten diren malkoak, malkoek zer sortarazten diguten... kontu horiek eta beste batzuk azaltzen zaizkigu Sibylle Delacroixen liburu hunkigarri honetan.

“Batuetan, bihotzean min daukagunean, begiek gainezka egin, eta negarrez hasten gara.” Horrela hasten da malkoen inguruko kontakizun hau. Testu laburrez eta orri osoa betetzen duten irudiez osaturiko liburu. Egileak lapitzez eginitako ilustrazio errealisten bidez, askotan gizakiaren zati bat –begien ingurua, aurpegia...– marraztuz, lortzen du gure arreta guztia puntu zehatz batean zentratzea, sentimendu batekin bat egitea.

“Edonork egin dezake negar. Neskek, mutilek”, diosku, ezkerreko orrian bi

malko isurtzen ari den neska eta eskuinekoan gauza bera egiten duen mutikoa erakutsiz. Baina haurrek bakarrik ez, helduek ere egiten dute negar, baita krokodiloek ere... eta “badira negar egiten duten zuhaitzak ere”.

Malkoak hau haurrari kontatzeko moduko liburu da. Ez du istorio bat azaltzen, egoera bat baizik, baina amaieran ikusi ahal izango dugun bezala, kontaktuz guztia haur bati zuzenduta dago, negarrez ari den bati. Eta egileak, malkoei eta negarrei buruz azalpen guztiak eman ondoren, alaitasunerako eta jolaserako gonbita egiten dio haurrari. Gainera, gonbit horrek, “Eta orain, arindurik, prest gaude kanpora itzultzeko”, bide ematen dio kolore ugariz ilustraturiko amaiera zoriontsuari.

Liburu sinplea da *Malkoak*; gauza ba-

ten ingurukoa, malkoen eta negararen ingurukoa, eta haur txiki bati azaltzeko moduko obra. Testu gutxi, ideia bakar batzuk, denak erlazionaturik eta orden batean, amaiera baten bila. Negarrez ari den haurra kanpora irten dadila bere lagunarekin jolastera. Sinplea esan dugu, baina ez horregatik landu gabea. Egileak ederki lortzen du erritmo egokia, ideia batetik bestera salto egitea irakurlea, negarrez ari den haurra bezala, lasaitzeko. Eta helburu horretarako hitza eta irudia erabiltzen ditu, bien arteko mezua plazaratuz.

Haurrari kontatzeko moduko liburu dela esan dut album goxo, hunkigarri hau. Ziur bainaiz altoan hartu eta etxean lasai, heldua eta haurra liburuko orrietan barnerratz, une goxo eta atsegina igaroko duzuela. ●